KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 1

Erraldoi eta buruhaundien ibilbideak

Ortzirala, abuztuak 2
Irteera: 16.30ean.
Udaletxea, Gaiteroen karrika, Nagusia, Puy, Izarra, Foruen plaza, Caldereria, Santiago plaza, Nagusia, Zapateria, Ruiz de Alda, Espoz y Mina, Ruiz de Alda, Zapateria, Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Nabarreria, Nagusia, Carpintería, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

Larunbata, abuztuak 3
Irteera, 10:30
Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Foruen plaza, Caldereria, Santiago plaza, Nagusia, Puy, Izarra, Carpinteria, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

Irteera, 17:15
Udalbatza lagunduko da Udaletxetik San Pedro Ruakoa elizara, ondoko kaleetan zehar: Gaiteroen karrika, Nagusia, Antso Ramirez, Azucarero zubia eta San Martin plaza. Elizkizunak bukatutakoan kale berberetan zehar itzuliko da Udaletxera.

Igandea, abuztuak 4
Irteera, 10:30
Udaletxetik, Gaiteroen karrika, Nagusia, Antso Ramirez, Azucarero zubia eta San Martin plaza. Hemendik prozesioaren ibilbidea eginen da, gero aipatutako kale berberetan zehar itzultzeko.

Astelehena, abuztuak 5
Irteera, 11:00
Udaletxea, Gaiteroen karrika, Nagusia, Santiago plaza, "Entrañas" aldapa, Deierri etorbidea, Uharte Donibanekoa Doktorea, Trenbideko zubia, Arieta, San Jeronimo Egoitza, Arieta, Andia, Donibane Zubia, Deierri etorbidea, Zezen plazako zeharbidea, Arroitz, Bakearen plaza, Zezen plazako zeharbidea, Deierri Etorbidea, Sortzez Garbia eta Udaletxea.

Asteartea, abuztuak 6
Irteera, 11:00
Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarreria, Izarra, Foruen plaza, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea. Jarraian Haur-Udalbatza lagunduko da San Pedro Ruakoa elizaraino, eta kale berdinetan zehar itzuliko da Udaletxeraino. Ondoren, Sortzez Garbia, San Andres, San Veremundo, Vianako Printzea, Coronacion plaza, San Andres, Sortzez Garbia eta Udaletxea.

Asteazkena, abuztuak 7
Irteera, 11:00
Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Nabarreria, Erraldoiak eta Buru Handiak, Puy, Nagusia, Zapateria, Antso Ramirez, Azucarero zubia, San Martin plaza, La Rua, Hilobi Santua, La Rua, San Nikolas, Aben Seraq, Frai Diego, Los Llanos zubia, Antso Azkarra, Sortzez Garbia, Behe Nafarroa, Foruen plaza, Comercio, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

Ortzeguna, abuztuak 8
Irteera, 11:00
Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Erraldoiak eta Buru Handiak, Puy, Izarra, Foruen plaza, Caldereria, Santiago plaza, Nagusia, Behe Nafarroa, San Andres, Sorkunde Garbiaren Pasealekua, Gaiteroen karrika, Nagusia, Behe Nafarroa, Foruen plaza, Behe Nafarroa, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

kotarro
25. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behea, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 800

paper birziklatua

KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 2

25. zbk.

kotarro

www.garean.org

2013ko jaiak

debaldeko alea



Pedro Irulegi

Garean Lizarrako festetan

Garean Lizarrako festetan parte hartuz, umeekin jolastuz, kanta kantari, irrintzi ikaragarriak botaz, dantzatuz, txirloetan arituz… festaz gozatuz, giro euskaldunean, euskaraz.

Garean Jai Alai 2013ko egitarau osoa 7. orrialdean

Garean Euskaldunon Elkartea

Baietz eta baietz ba!!! Gora Lizarrako jaiak!!!

Abuztuaren lehen igandearen aitzineko ortzirala heltzera doa, eta Garean Euskaldunon Elkarteak Lizarrako festaren labirintoan ez galtzeko ezinbestekoa gida eskaintzen dizu 25. Kotarro honetan. Edo nahita galtzeko. Ongi pasa!

Abuztuaren 2an, ortzirala

12.00etan	Udaletxeko balkoitik, **SUZIRIA** jaurtikiko da; dantzariek Larrain Dantzaren Jota Zaharra dantzatuko dute, eta musika banda, txistulariak, gaiteroak, errondailak, akordeoilariak, dantzari ohiak, kalejira alaitsuak jotzen eta dantzatzen ibiliko dira kaleetan zehar.
12:15etan	Foruen plazan, haurrendako bonba japoniarrak.
12.30etan	Los Llanos-ko zubian, CUCAÑA.
13.00etan	**Foruen plazan, dantzari ohiek omenaldia Julián Romano Ugarte eta Demetrio Romano Vidaurre, Larrain-dantza.**
13.00etan	San Martin plazan, VOCES NAVARRAS jota taldearen ekitaldia.
16.30etan	**Ospitale Zaharretik, ERRALDOI ETA BURU HANDIEN konpartsaren irteera.**
17:45etan	Udal Gorenaren irteera bere segizio ofizialaz lagundurik.
18.15etan	Puy Birjinaren Basilikan BEZPERA NAGUSIAK. Haurrendako, bonba japoniarrak Puy-ko zelaian. Jarraian ohiko PUY-tik JAITSIERA.
18.30etan	Foruen plazan, animazioa haurrentzat Tobogán taldearekin.
20.15-21:45	Foruen plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.
20.30etan	BEHI IGOERA entzierroaren bidean zehar.
21.00etan	La Bota eta San Andres peñen irteera Udaletxetik.
22.00etan	Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa.
23.00etan	**Santiago plazan, dantzaldia DRINDOTS taldearekin.**
23.00etan	**Txosnetan, kontzertua, Konde Rata, On, Flitter, DJ Carlos Pérez, DJ Eduardo Díaz.**
24.00-01.00	Foruen plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.
01.00ean	**Foruen plazan, Desmayo, Larrain Dantza, eta Lizarrako Potpurria Deierri Akademiako gaiteroekin. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**
01:45-03:45	Foruen plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.

KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 3

Abuztuaren 3an, larunbata

8.00etan Dianak eta alboradak Musika Banda eta gaiteroekin.
8.00etan ENTZIERROTXOA.
8.15-9.00 **Lizarra Ikastolaren Barrakan SALDA.**
9.00etan LEHEN ENTZIERROA; zezen plazan, betizuak.
10.30etan Remontival pilotalekuan, Eskuz Binakako VIII. Pilota Txapelketaren Finalak
10.30etan Lizarrako Udalbatzaren irteera.
11.00etan Puy Birjinaren Basilikan, MEZA NAGUSIA. Jarraian bonba japoniarrak. Segidan, NESKEK PUY-tik JAITSIERA.
12.00etan **LIZARRAN KANTUZ, Baxenafarra kaletik hasita, Garean-en eskutik.**

13.00etan Los Llanos Pasealekuan, MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.
17.15etan Lizarrako Udalbatzaren irteera.
17.30etan San Pedro Ruakoa eliza, BEZPERA NAGUSIAK.
18.30etan Zezen plazan, ZEZENKETA HANDIA EL CID - IVÁN FANDIÑO - AGUSTÍN DE ESPARTINAS Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.
18.30etan San Martin plazan, haurrendako gymkhana.
19.30-21.00 Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.
20.30etan **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: IRRINTZI TXAPELKETA.**
21.00-22.00 **Foruen plazan, dantzak Gaita eta Danborreko gela gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran txistulariekin.**
22:45etan San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.
23.00etan **Santiago plazan, dantzaldia GAUBELA taldearekin.**
23.00etan **Txosnetan, kontzertua: Akort, La mala pekora, Raperos de Emaus, Dodo Sound Sistem, Dj Menpaz.**
24.00-01.00 Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.
01.00ean **Foruen plazan, Larrain Dantza eta Desmayoa Iturrieta gaiteroekin. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**
01:45-4:45 Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.

Abuztuaren 4an, igandea

8.00etan Dianak eta ENTZIERROTXOA.
8.15-9.00 **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**
9.00etan ENTZIERROA; zezen plazan, betizuak.
10.30etan Lizarrako Udal Korporazioaren irteera.
11.00etan San Pedro de la Rua elizan, MEZA NAGUSIA.
11.30etan Los Llanos Pasealekuan, MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.
12.00etan PROZESIO HANDIA San Pedro de La Rua elizatik. Jarraian LA PAÑUELADA.
18.30etan Zezen plazan, ZEZENKETA HANDIA FRANCISCO MARCO - JAVIER CASTAÑO - JOSÉ MANUEL SANDÍN Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.
19.00etan Santiago plazan, ipuin kontalaria: "Los duendes de la radio".
19.00-00.00 **Santiago plazan, PATXI ETA KONPAINIA, musika eta dantzaldia, Lizarra ikastolaren eskutik.**

19.30 **Txosnetan, pintxo-pote + karaoke + musika**
19.30-21.00 Foruen plazan, dantzaldia MAGNUM orkestrarekin.
21.00-22.00 **Foruen plazan, dantzak Iturrieta gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldeko txistulariekin.**
22.00etan Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.
22:45etan San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.
24.00-01.00 Foruen plazan, dantzaldia MAGNUM orkestrarekin.
01.00ean **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourria Hermanos Montero gaiteroekin.**
01.30-3.30 Foruen plazan, dantzaldia MAGNUM orkestrarekin.

Abuztuaren 5a, astelehena

8.00etan Dianak eta alboradak eta ENTZIERROTXOA.
8.15-9.00 **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**
9.00etan ENTZIERROA; zezen plazan, betizuak.
10.00etan Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.
11.00etan **ERRALDOI ETA BURU HAUNDI KONPARTSAREN irteera**, udaletxetik. Ondoren, bonba japoniarrak Foruen plazan.
11.00etan HAMAIKETAKOA San Martin plazan, ardoa eta garagardoa Udalaren opari. Jarraian BOMBADA hiriko kaleetan zehar.
11.00etan San Juan elizan, meza, Foruen plazan UDALAREN OMENALDIA NAGUSIEI eta ACORDES NAVARROS jota-taldearen emanaldia.
12.30etan **Los Llanos pasealekuan, KONTZERTUA** Lizarrako Musika Bandaren eskutik. Atsedenaldian Ruiz-Echeverria gaiteroen ekitaldia.
13.00etan **Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**
13.00etan Los Llanos pasealekuan, MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldi berria.
17.30etan San Migeleko zelaian, bonba japoniarrak.
18.00etan San Miguel auzoko pilotalekuan, haur jolasak, "Como Quieras" taldearen eskutik.
18.30etan Zezen plazan, BURTZIKADA ARTEAREN ZEZENKETA SEI ADARDUN zezenkatuko dira, honako burtzikari hauentzat: PABLO HERMOSO DE MENDOZA - MANUEL MANZANARES - MIGUEL MOURA
Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.
19.00etan **San Martin plazan, Gorriti eta bere animaliak**
19.30-21.00 Foruen plazan, dantzaldia DIAMANTE SHOW BAND orkestrarekin.
20.30etan **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: HERRI-KIROLAK.**
21.00-22.00 **Foruen plazan, dantzak Hermanos Montero gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariekin.**
22.00etan Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.
23.00etan **Santiago plazan, dantzaldia MODESTO gizon orkestrarekin.**
24.00-01.00 Foruen plazan, dantzaldia DIAMANTE SHOW BAND orkestrarekin.
01.00ean **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Ruiz-Echeverria gaiteroekin.**
01.30-3.30 Foruen plazan, dantzaldia DIAMANTE SHOW BAND orkestrarekin.

Abuztuaren 6a, asteartea

8.00etan Dianak eta alboradak eta ENTZIERROTXOA.
8.15-9.00 **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA**.
9.00etan ENTZIERROA; Zezen plazan, betizuak.
10.00etan Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.
11.00etan **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera**, udaletxetik.
11.30etan Haur Korporazioaren harrera Udaletxean.
12.00etan SUZIRIAK. Ondoren, San Pedro de La Rua elizan, Haur Korporazioa. Jarraian, HAUR PAÑUELADA eta itzulera.
12.30etan **Los Llanos pasealekuan, musika banda KONTZERTUA. Atsedenaldian ekitaldia Gaita eta Danborreko gelaren gaiteroen eskutik.**
13.00etan **Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**
13.00etan Los Llanos pasealekuan, MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren azken emanaldia.
16.00-20.00 **Los Llanos pasealekuan, HAURRENDAKO JOLASPARKE HANDIA.**

18.00etan **Remontival pilotalekuan pilota partida profesionalak.**
18.30etan Zezen plazan, "Errekortarien lehiaketa". Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.
19.30-21.00 Foruen plazan, dantzaldi MONCAYO orkestrarekin.
20.30etan **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: KIKI PAILAZOAREN EMANALDIA.**
21.00-22.00 **Foruen plazan, musika Ruiz-Echeverria gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariak.**
22.00etan Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Ondoren, HAURRENDAKO CHE-ra JAITSIERA La Bota peñarekin.
23:30-03:00 Koroatze plazan, musika disko-dantza.
24.00-01.00 Foruen plazan, dantzaldia MONCAYO orkestrarekin.
01.00ean **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Deierri Akademiako gaiteroekin.**
01.30-3.30 Foruen plazan, dantzaldia MONCAYO orkestrarekin.

LIBRERIA-PAPELERIA
INO
LIBURUDENDA-PAPERDENDA
Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

LIZAR
Mantenimiento de Jardines
JARDINERÍA
Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com

KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 5

Abuztuaren 7a, asteazkena

8.00etan Dianak eta alboradak eta ENTZIERROTXOA.
8.15-9.00 **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**
9.00etan ENTZIERROA; zezen plazan, betizuak.
10.00etan Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.
10.30etan **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera** udaletxetik. Ondoren, bonba japoniarrak Foruen plazan.

11.30etan San Migel auzoko pilotalekuan, "Aparraren Jaia".
12.00etan Foruen plazan HERRI KIROLAK, La Botaren eskutik.
12.30etan Los Llanos pasealekuan, Kontzertua Lizarrako Musika Bandaren eskutik. Atsedenaldian, Iturrieta Gaiteroen ekitaldia.
13.00etan **Los Estellicas errondailaren eta Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**
13.15etan Udaletxean, harrera ofiziala Estellerriko alkateei.
13.30etan **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: JAUZIAK ETA HERRI DANTZAK**
14.30etan **Santiago plazan, Garean bazkaria.**
18.30etan Zezen plazan, HERRI ZEKORKETA
Agustín Hipólito "FACULTADES", Javier SOLANO, MigueL Ángel Cerviño "EL MOZO DE DURBAN", Diego LARRAÑAGA.
20.30etan ENTZIERROTXOA.
21.00etan ENTZIERROA.
19.30-21.00 Foruen plazan, dantzaldia LA TARANTELLA orkestrarekin.
21.00-22.00 **Foruen plazan, musika Gaiteros de Estella Ruiz-Echeverria eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariak.**
22.00etan Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.
23.00-02.00 Koroatze plazan musika disko-dantza gazteentzat.
24.00-1.00 Foruen plazan, dantzaldia LA TARANTELLA orkestrarekin.
1.00ean **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Iturrieta gaiteroekin.**
1.30-3.30 Foruen plazan, dantzaldia LA TARANTELLA orkestrarekin.

Abuztuaren 8a, ortzeguna

8.00etan Dianak eta alboradak eta ENTZIERROTXOA.
9.00etan ENTZIERROA; zezen plazan, betizuak.
10.00etan Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.
11.00etan **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera, udaletxetik.**
11.15etan Urederra Ibaia plazan, bonba japoniarrak.
11.00etan Santiago plazan, XLIII. AJOARRIERO LEHIAKETAren partaideak hasiko dira bakailaoak atontzen..
13.30etan Ajoarriero Lehiaketaren lapiko hertsatzea.
17.30etan ENTZIERROTXOA.

18.00etan ENTZIERROA zezen plazaraino.
19.00etan San Migel auzoko pilotalekuan, haurrendako disko-festa show eta "globoflexia" lehiaketa
19.00etan **Santiago plazan, XLIII. AJOARRIERO LEHIAKETAren emaitza.**
19.30-21.00 Foruen plazan, dantzaldia CAIMÁN SHOW orkestrarekin.
21.00-22.00 **Gaita Musika Iturrieta gaiteroekin.**
22.00etan Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.
24.00-1.00 Foruen plazan, dantzaldia CAIMÁN SHOW orkestrarekin.
1.00ean **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Gaita eta Danborreko gela gaiteroekin.**
1.30-3.30 Foruen plazan, dantzaldia CAIMÁN SHOW orkestrarekin.

ETXE-BERRIA
natur denda
Ongi pasa jaietan eta gozatu Santiago plazako giro euskaldunean!!!
Irekita, goizez: 11.00etan; eta arratsaldez 19.00etan

Jatetxea
Volante
Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

Gehigarrizko oharrak

UZTAILAREN 31n, ASTEAZKENA

19,00ean San Martín plaza, "Festak berdintasunean" Kafe-Kontzertua, Estella-Lizarrako Emakumeen Asanbladak antolatua.

21:00etan "Los Llanos" zineetan, "La nave" konpainiak, "Fiestellas" antzezlana taularatuko du.

ABUZTUAREN 1an, ORTZEGUNA

11:00etan Zezen plaza, "Haur Pintura Taurinoaren XIV. Lehiaketa", "Club Taurino Estelles"ek antolatua.

18:00etan Chapitel kalean, "XXI.TXILINDRON LEHIAKETA".

19:00etan **Foruen plaza, GAREAN JAI ALAI: jolas tradizionalak KULKIrekin.**

20:00etan Zezen plaza, "DESENCAJONAMIENTO" eginen da, abuztuaren 3, 4 eta 5ean, larunbata, igandea eta astelehena, hurrenez hurren, zezenketetan arituko diren zezenena.

22:00etan San Martín plaza, entzunaldi-kontzertua ESTELLA-LIZARRA MUSIKA BANDAk emana.

23:00etan **Txosnetan, kontzertuak: Kelly Kapowsky, Enkore, Ingo al Deu.**

23:30-03:00 Foruen plaza, musika disko-dantza.

ABUZTUAREN 2ean, ORTZIRALA

05:30ean Aurora lizartarra, "Adriano Juaniz" Auroro Taldeak eskainita.

ABUZTUAREN 9an, ORTZIRALA

21:00etan Foruen plaza, dantzak Ruiz-Echeverria gaiteroekin.

22:00etan Foruen plaza, zezensuzkoaren lasterketa.

ABUZTUAREN 10an, LARUNBATA

21:00-22:00 Foruen plaza, dantzak Deierri Akademiako gaiteroekin.

22:00etan Foruen plaza, zezensuzkoaren lasterketa.

ABUZTUAREN 11an, IGANDEA

21:00etan Foruen plaza, dantzak Hermanos Montero gaiteroekin.

22:00etan Foruen plaza, zezensuzkoaren lasterketa.

Lizarrako ikastolaren barraka

Aurten ere, 1975 urtetik ohitura denez, Santiago plazan Lizarra Ikastolaren barrakaren inguruan festak giro euskaldunean bizitzeko aukera izanen dugu. Bertan, goizeko saldak, eguerdi lasaiak, oilasko-erreak eta gaueko kontzertuak Lizarrako euskaltzale eta euskaldunon topagunea izanen dira.

Egitaraua

ostirala, abuztuak 2
- 23.00 Gau festa: Drindots

larunbata, abuztuak 3
- 08.00 Salda banaketa
- 23.00 Gau festa: Gaubela

igandea, abuztuak 4
- 08.00 Salda banaketa
- 19.00-00.00 Musika eta dantzaldia "Patxi eta Konpainia" taldearekin.

astelehena, abuztuak 5
- 08.00 Salda banaketa
- 23.00 Gau festa: Modesto "gizon orkestra"

asteartea, abuztuak 6
- 08.00 Salda banaketa
- 14.30 Herri bazkaria

Lizarrako Festetan irekiak gaude, 10,00tik - 13.30ra
fotolizarra
Karlos II Gaiztoa, 3 behea
31200 Lizarra - Nafarroa
Telf: **948 553 262**
www.fotolizarra.net • info@fotolizarra.net

KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 7

JAI, JAI, JAI, jai, jai, jai, jai, jai, jai, jai, jai, JAI ALAI! Irrintzi bat entzun da? Bai! Jai alai 2013 gertu dago eta!

Jai Alai jaietan euskaraz aritzeko gune txiki bat baino ez da, zorionez gero eta aukera gehiago baitugu gure hizkuntzan aritzeko esparru ezberdinetan. Halere, egitarau ofizialean gabezia handiak daude, txikia baita euskaraz egiten den eskaintza. Euskaldunak toki guztietan gaude, denetarik egiten dugu, baina maiz ikustezinak gara. Beraz, Gareanetik animatu nahi zaituztegu Estella-Lizarrako jaietan euskaraz bizitzera, euskararen presentzia aldarrikatzera eta gure hizkuntzaz ahalik eta esparru gehien zipriztintzera.

Jai bezperako jolasekin hasiera eman ohi diegu jaietan antolatzen ditugun jarduera sortari. Foruen plaza haurren zein helduen jostaleku bihurtzen da. Izan ere, antzinako jolasak zaharberrituak aurkituko ditugu: artzainenak, arrantzaleenak, baserrikoak... Aurten baserriko jolasekin batera, antzararen jolasa ekarriko digu Kulkik. Jolas ezberdinetan zehar antzararen jolasak eramanen gaitu, dadoek adieraziko baitigute zein jolasetan arituko garen. Bi orduz luzatuko denez, dadoekin buelta bat baino gehiago egin ahalko dugu.

Larunbat goizean urtetik urtera gero eta jendetsuago bilakatu zaigun ekitaldia dugu: **Lizarran kantuz** Behe Nafarroa karrikatik abiatuko da Lizarrako bazterrak euskal kantekin alaitzeko.

Larunbat arratsaldean, **II Irrintzi txapelketa** izanen dugu. Iaz lehendabiziko aldiz antolatu genuen eta txapelketak izan zuen arrakasta ikusita, aurten berriro egitea da proposamena. Iazko txapeldunak ohorezko irrintzia botako du eta baliteke sorpresaren bat egotea. Hemendik zaletasuna duten guztiak parte hartzera animatu nahi ditugu. Eta irrintzia botatzera ausartzen ez dena Santiago plazan ager dadila, giroa aparta izanen baita.

Astelehenean **herri kirolekin** beteko dugu Santiago plaza. Jolas ezberdinetan aritzeko aukera izanen dugu, erakustaldia egitearekin batera, ikusleei parte hartzeko eskatuko baitzaie. Gure trebezia aproban jarri ahalko dugu.

Asteartean **Kiki pailazoak** *Katapuntxispun*-festa ekarriko digu. Haurren egunean Kikik gure txikiak irri egitera, dantzatzera eta jolastera gonbidatuko ditu.

Asteazkenean **Jauziak** eta herri dantzekin izerdituko gara. Igandetik asteazkenera aldatu dugu aurten eta bazkaldu aitzin izanen da.

Gozatzeko prest? Zatoz! Hurbildu zaitez! Zurekin, euskaldunon sarea zabaldu eta indartuko da Lizarrako festetan ere. Ongi etorria izanen zara.

PASTELERIA GOXOTEGIA
ESTELLA LIZARRA
NAPAL MONTOYA
Angela
Plaza Fueros 2 Tel 948 55 07 95

ASTARRIAGA
GRAFICAS
Pl. Zugarraondoa, 6 • ABARZUZA • 948 520 138

Jai Alai 2013 Egitaraua

Abuztuaren 1a, ortzeguna
Jai bezperako jolasak
Foruen plaza, 19:00 – 21:00.
KULKIk *Baserriko jolasak* ekarriko dizkigu berriro baina berrikuntza batekin: *Antzararen jolasa baliatuko* dute jokalariek kirol batetik bertzera joan ahal izateko.

Abuztuaren 3a, larunbata
Lizarran Kantuz
Behe Nafarroa karrika, 12:00
Behe Nafarroa karrikan elkartuko bagara ere, betiko ibilbidean arituko gara kantari.

Irrintzi txapelketa
Santiago plaza, 20:30.
Sarreran erran bezala, bigarren txapelketa dugu aurtengoa. Txapelketaren unean bertan eman daiteke izena. Aldez aurretik konfirmatu nahi duenak Alfredo Dufurrengana jo dezake.

Abuztuaren 5a, astelehena
Herri kirolak
Santiago plaza, 20:30.
Aurtengo berrikuntza ditugu Herri kirolak. Gehienbat, parte hartzekoak izanen dira. Jendea aritzen den bitartean, erakustaldiren bat egonen da.

Abuztuaren 6a, asteartea
Kiki pailazoa
Santiago plaza, 20:30.
Haurren egunerako Kiki pailazoak *Katapuntxispun*-festa prestatu digu. Irri egiteko, dantzatzeko eta jolasteko aukera paregabea!

Abuztuaren 7a, asteazkena
Jauziak eta herri dantzak
Santiago plaza, 13:30.
Ohiko dantza saioa asteazkenera aldatu dugu. Bazkaldu aitzin, ordu betez arituko gara dantzan. Gero, urtero bezala bazkari autogestionatua. Animatzen denak jatekoa eraman eta konpartitu beharko du.

KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 9

Lizarrako txosnak: iraganeko oihartzunak gaurkotasunaren lekuko

Lizarrako txosnak orain 20 urte jarri ziren martxan Flitterren, Tximeleta talde feministaren eta intsumisio mugimenduaren eskutik; eta, oihartzunak hots zaharra ekartzen digun gisara, 2013ko txosnek musika talde zaratatsu horren biziberritzea ekarriko digute.

Txosnek hogei urte betetzen duten honetan, antolatzen ari diren hiru gazte elkarrizketatu nahi izan ditugu. Gazteenetik hasita, Uxue, tarteko Mikel, eta beteranoenaraino, Garazi, 10 urte igarotzen dira eta hauek beste hainbeste urte dituen soka baten azken muturra besterik ez dira.

Kotarro - Noiz hasi zarete 2013ko txosnak antolatzen?

Txosneroak - Urtarrilean hasi ginen aurreneko bilerak egiten eta ordutik hona batzarrean elkartu izan gara. Gutako batzuk zenbait kolektiboren ordezkari joaten bagara ere bada jendea norbere izenean parte hartzen duena. Lehen batzarrean txosnak antolatzeko bost lan taldeak martxan jartzen hasi ginen, hauek Musika, Eskaerak eta Udalarekin harremanak, Ekintzak, Ekonomia eta Komunikazioa ditugu. Berez, nahiz eta asanblada den txosnen inguruan erabakiak hartzeko gunea, sator lana lan taldeetan burutzen dugu.

Lagun asko behar dira beraz, nortzuek zarete?

Osotara, lan talde zein asanbladetan, bataz beste, 30 bat lagunek parte hartu dugu. Hauei gehitzen badiegu jaietan lan txandak egiten dituztenak, ehun lagun ingururen lanak egiten du posible jai esparru alternatibo hau. Gehienok 17 eta 26 urte bitarte ditugun arren adin tarte zabala betetzen dugu: gazteenak 16 urte ditu eta zaharrenak 36.

Eta jakin mina sor dezakeen galdera orain, zergatik txosnak? Hau da, jai garaian lana suposatzen dute, txosnak antolatzeak zer ematen dizue?, zein motibazio duzue?

Batetik, Udalak sortzen duen egitarauari Lizarrako jaietarako alternatiba bat sortzea. Alternatiba hau autogestionatua eta kaletik egina da. Guretzako gauzak guk prestatu nahi ditugu eta ez kontsumitzaile hutsak izan. Ez hori bakarrik, gure gozamenerako prestatzen dugun hori jendeari eskaini nahi diogu. Txosnetan ikasten dugu prestaketak ere badituela bere gozamenak. Behar ekonomikoa dugu bestelako motibazio pragmatikoagoa. Txosnetan irabazten den dirua Lizarran urte osoan zehar irabazi asmorik gabeko ekintzak finantzatzeko erabiltzen da, hauen eragina urte osora zabalduz.

> *"Guretzako gauzak guk prestatu nahi ditugu eta ez kontsumitzaile hutsak izan."*

Bestetik, motibazio sozial argi horietaz gain, motibazio pertsonalak ere baditugu. Txosnak antolatzen jendea ezagutzen duzu eta haiekin esperientziak konpartitzen dituzu. Garrantzitsua, balekoa eta baliagarria sentitzen zara jaiak zabalagoak eta anitzagoak egiten dituzulako. Udaletxeak egiten dituen gauzekin ez da nahikoa, ez da gai Euskal Herri osotik jendea erakartzeko, horretarako ezinbestekoak gara txosnak, dantza taldeak, peñak, txarangak... bestela, ez dago festarik.

Jai zoriontsuak!
ANETSA
948551998
FRAY DIEGO 41
LIZARRA
Bokatak, hamaiketakoak eta afari goxoak

Gazte giroa Lizarrako alde zaharrean
Bar Berri
Navarrería, 47 • Tel. 948 54 66 46

Honek denak hazkunde pertsonala bezala ere ikus dezakegu. Nerabezaroa gainditzen ari garenean, etxetik zein eskolatik kanpo, zure ardurak hartzen dituzu eta badaukazu autonomia pixka bat gehiago gauzak egiteko. Ez dizu inork bidali behar egin behar duzuna egitera, nahi duzulako egiten duzu. Hori da garrantzitsuena. Ordu asko, buru hauste pila eta poltsikotik dirua jartzen duzu baina zuk erabaki duzun gauza bat egiten ari zara eta, horrela, eskaintzen duzu bai, jaso baina, pilo bat jasotzen duzu bueltan. Azkenean engantxatzen zaitu eta hilabetetako lanaren emaitza ikusten duzunean... bada, horretan parte hartzea izugarria da.

Aurtengo txosnek ba al dute berritasunik?

Bai, batez ere hauen egituran dugu aldaketarik nabariena. Dirua aurreztearren (iaz dirua galdu genuen) txosnen ordez barra luze bat jarriko da edariak zerbitzatzeko. Edalontzien kaserna, distria eta sukaldea aparte izanen dira, sukaldeak bai izanen duela berezko txosna. Gainera aurten familientzako ordutegia zabalduko dugu, horrela goizetan guraso eta haurrei 11:00etatik 15:00etara bermuta, fritoak, jolasak, proiekzioak ea. eskainiko dizkiegu.

Txosnen kartelak beti adierazten du mezuren bat, zein da aurtengoa?

Hitz batean, borroka. Kartela diseinatzean bi indigena amerikarren irudiak baliatu genituen baina gero ohartu ginen indio estereotipatuak jarri genituela, bi gizon. Horrela, hauen erdian Bettyren gehitzea erabaki genuen ezin hobe adierazten zuelako transmititu nahi genuen mezua: indigena, borrokalaria, emakumea... gertatu zitzaiona lotsagarria izan zen eta, hortaz, omenaldi xume bat egitea erabaki genuen. Bestetik, kartelaren beheko zatian La Pollaren esaldi bat dago "¡Si esto es vivir en serio, preferimos hacer el indio!". Jaietako dibertsioaren zentzua ahaztu gabe, "hacer el indio", indigenak bezala borrokatzen garela adierazi nahi genuen.

Eta, euskarak, zer paper hartu du antolakuntzan?

Euskararen erabilera norberaren esku geratzen bada ere bai saiatzen garela baldintza batzuk betetzen. Horrela karteldegi gehiena euskara hutsez dugu edo ia (txosnak iragartzeko kartela, prezioak, bokatak...), irratirako eta internetarako kuña euskara hutsez izan da aurten eta egunero musika talde euskaldun bat bermatzen saiatzen gara. Horrela, ostegunean, hiru taldetik bik (Enkore eta Ingo al Deu?) euskaraz abesten dute, ostiralean hiru taldetik batek (On-ek) eta larunbatean beste hainbeste (Akort-ek) eta beste batek zerbait egiten du euskaraz (Raperos de Emaus). Igandeko karaokea ere batez ere euskaraz izanen da haurrentzako jolasak bezala. Txosna-barretan bestetik, zerbitzari ia guztiak euskaldunak gara, hortaz euskarazko zerbitzua ahalbidetzen dugu.

Txosnetan euskara asko egiten da, bitxia bada ere, eta geuri gertatu zaigu, txosnagunetik kanpo maiz gaztelaniaz egiten duzu baina bertaratzean txipa aldatzen zaizu. Txosnek eskaintzen dute eremu bat non euskaraz hitz egitea natural egiten zaizun: hizkuntza paisaiak, gazte giroa... euskaraz egiteko erraztasuna sortzen da.

Honekin bada bukatu dugu elkarrizketarekin, esker anitz zuen denborarengatik eta zorte on txosnetan. Bertan ikusiko dugu elkar!

Eskerrak zuei elkarrizketarengatik.

Txosnak 2013 egitaraua

Abuztuak 1, ortzeguna
- 22:00 Ekitaldia
- 23:00 Kontzertuak: Kelly Kapowsky, Enkore, Ingo al Deu

Abuztuak 2, ortzirala
- Bazkaria
- 18:00 kalejira (Kaletarrok, Lizarrako batukada, bertsoak)
- 24:00 Kontzertuak: Konde Rata, On, Flitter, DJ Carlos Pérez, DJ Eduardo Díaz

Abuztuak 3, larunbata
- 11.00-15.00 Pintxoak, frijitoak, eta vermuta.
- 12.00-14.00 Haurrendako zirku-eskola.
- 24:00 Kontzertuak: Akort, La mala pekora, Raperos de Emaus, Dodo Sound Sistem, Dj Menpaz

Abuztuak 4, igandea
- 12.00-13.00 ipuin kontalaria.
- 13.00-14.00 makillaje artistiko tailerrak eta globoflexia.
- 19:30 pintxo-pote + karaoke + musika

KOTARRO 25 JAIAK_Maquetación 1 24/07/13 20:46 Página 11

Jaiak Musutruk

Alfredo Dufur

Aurten ere Jaiak Musutruk zozketa egin da eta ziur, denok ez bada ere gehienok, erosi dugula txartelen bat. Zozketa egin den moduan, irabazlea ere agertu zaigu eta gure etxean genituen zozketa-txarteltxo dotore horiek zaborrontzira bidean dira (mesedez, paper-zaborrontzira). Hortaz, bi egiteko ditugu jai hauetan: irabazlea, Irene, zoriondu eta bere lagun-min berria egin!

Lagun egiteko erran dudanean, ez gaizki ulertu, saridunaren hobebeharrez egin dut, Musutruk saria gehiegizkoa baita pertsona bakarrarentzako. Berez, ahopeka entzundako zurrumurruen arabera (ahopekako zurrumurruak ez ditu inork erraten, ez dute jabetza intelektualik), behin hola lizarratar ausart batek bere kuadrillaren aurrean hitzeman zuen Musutruk saria berak bakarrik, eta inorekin konpartitu gabe, bere osotasunean probestuko zuela.

«lizarratar ausart batek bere kuadrillaren aurrean hitzeman zuen berak bakarrik probestuko zuela…»

Horrela gazte horrek, inoiz ikusi gabeko balentriari Udaletxe pareko txupineko momentuan bertan eman zion hasiera. Kuadrillari bizkar emanez, dantzarien atzetik jaiaren zurrunbiloan desagertu zen eta izaki hilkorren eremua atzean utzi zuen elezaharren esparrura jauzi eginez. Jaiak igarotakoan, inork ez zekien heroiaren patua zein izan zen, baina, erraten da, eta lagun baten lehengusuaren bikotearen kuadrillako baten izebak berresten du hori, jaietako gaueko ordu zehatz batzuetan, Kotarro kalean dauden eskaileretan gora begiratzean, seigarren eta zazpigarren eskaloien artean eskaloi berri bat agertzen dela.

Bertan lanbrotsu begiradaren ertzetik so eginda katxi baten mugimendu zirimolatsua nabaritu omen daiteke. Begirada finkatzean baina, betiko seigarren eta zazpigarren eskaloiak bertzerik ez dira ikusgai, baina, diotenez, eskaloien arteko mugara gerturatzen bazara 1994ko Musutruk txartel bat topa dezakezu zoruan, tanta gorri batzuk zikinduta. Elezaharrak hemen kontalariaren arabera aldatzen du istorioa, batzuek diote odol tanta bat dela bertzeek kalimotxoarena, baina denak ados daude gauza batean: 1994ko Musutruk txartela hartzean dardarizo hotz batek gorputza zeharkatu diela alderik alde eta bitartean haize leun batek garondoa igurtzi besoko ileak latz jarriz. Orduan, momentu hortantxe, entzumenaren mugan ahots batek xuxurlatzen die belarria laztanduz: "eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat eta jaiak, musutrukentzat".

Dena den, zaila da testigantza horien sinesgarritasuna baieztatzen, udaltzainek egindako ikerketa zorrotzek lekukoen odolean hainbat substantzia psikotropiko topatu baitituzte. Egia berdaderoz dakiguna zera da: euskaltegiko ikasle eta irakasleek Lizarrako jai txikietan hasi zirela txartelen salmentarekin eta guztira 3.000 inprimatu. Txartelak baina ez dira aski sariak lortzeko, horretarako ostalarien, merkatarien eta bestelako jendearen eskuzabaltasuna behar baita. Hauek haien zerbitzu kopuru mugatu bat doan eskaintzen baitiote Musutruk saridunari: edaria, jana, arropa... eta euskaltegirako matrikula bat. Sariak hitzartzeko, irakasleek Lizarrako ostalari eta merkatariak bisitatu dituzte haien laguntzaren eske. Azkenean, AEK-ren urte osoko lana finantzatzeko diru iturri ere badugu zozketa hau.

Batzuek diote Musutruk Lizarrako hiri-mitologiaren asmakizun bat bertzerik ez dela baina, esaera zaharrak dioen gisara: *direnik, ez da sinetsi behar, ez direla, ez da erran behar*. Hortaz, kontuz! Musutruk irabazleok, baliteke uste baino ehizaki handiagoa hartu izana atzaparren artean!

Sariaren xehetasunak

Hogei tabernatan banatutako 100 potetik gora eta pintxo anitz (bermuta); jai egun guztietan egunkaria, gosaria, bazkaria eta afaria; jaietan dotore egoteko ileapaintzea, alpargatak, arropa zuria, gerriko eta zapi gorriak; jaietako pilota partidurako sarrera; 2013-2014 ikasturterako matrikula euskaltegian eta landetxe batean asteburu pasa. Horrelako sari sortarekin irtenbide bakarra dauka irabazleak, lagunak gonbidatu eta gonbidatzen, lagun berriak egin!

Kotarro

aldizkariaren

25. alea

esku artean duzu.

Mila esker

laguntzaile, iragarle
eta babesle guztiei.

Zorionak

Estellerriko euskaldunei.
Zuei esker izan da posible.